



AN TZER KIAZ BLAI 2019

AZAROA 08 > ABENDUAK 15

ARGAZKIA: Engin Akyurt



AZAROA | BARIKUA | 19:00 | Zabielen
"Txarriboda" antzezlan.
HIKA teatroa


Mireiak eta Imanolek ezkongai bikote perfektua osatzen dute. Zorionaren irudi dira. Ezkundu egin dira gaur eta Patxi Bilbaok, emaztegiaren aitak eta Ipertrolakok handi-mandiak, antolatu du ospakizun gala. Festa itzela. –"Gaur txerrien antzera, jan, edan eta dantza egitea nahi dut!" Hitz horiekin egingo die harrera gonbidatuei. Guztiak bertan daudela dirudienean, ordea, Txusa azalduko da aretoan. Gizon gorputzean bizi den emakumea da Txusa eta Imanolen aitaren azken bikotea izan zen hura hil artean. Mireiak gonbidatu du ezkontzara. Emakumea atsegin du eta aukera polita iruditu zaio Imanolek Txusa hobeto ezaqueto eta bere aitarena gaindu ahal izateko. Baina ezuste hau beste askoren hasiera besterik ez da izango eta ezkontza behar zuenak, Txarriboda izaten amaituko du.



AZAROA | DOMEKA | 18:00 | Zabielen
"Harro nago"
ZIRTAKA antzeki taldea
Haurrentzako antzerkia

Egunero toki guztietatik eta komunikabide orotatik kontatzen digutenaren arabera, famatu, aberats edo "inportante" izateari egundoko garrantzia ematen zaio, baina askotan ez gara konturatzen garrantzitsuena norbera den modukoa izatea dela eta daukan lanbidez harro sentitzea dela. Zenbait pasadizo pasa ondoren, norbera bere buruaz konforme eta harro sentituko da.

24



AZAROA | DOMEKA | 19:00 | Zabielen
"Argazkiak" eta
"Beldurrari aurre egin"
Goizeko Izarra antzeki taldea

Aurten Goizeko Izarra antzerki taldea 25+1 ospatzen ari da. 1993an hasi ziren lanean Ramuntxo obrarekin eta ordutik hona 25 urte pasa dira eta 25 obra baino gehiago plazaratu dituzte. Era guztietakoak antzerki luzeak, laburrak, kale antzerkiak, herri antzerkiak, kafe antzerkiak...

Mutrikuko historiari lotutakoak ere bai. **ARGAZKIAK** Lan horien guztien argazkiak jaso nahi ditu.

BELDURRARI AURRE EGIN

Bortxaketa baten narrazioa da.

Eta bizitzako gertakizunek zer eragin duten pertsonarengan... Batzuetan oso min sakonak eragiten dira eta horren inguruko hausnarketa laburra egiten da.

13

ABENDUA | BARIKUA | 19:00 | Zabielen
"Sorpresadun pisua" eta
"Ligatzeko klaseak"
Akelarre antzerki taldea

SORPRESADUN PISUA

Bikote gazte bat amarekin batera internetetik erosi berri duten etxean sartuko dira baina, barruan ikusiko dutenerakin harrituta geratuko dira.

LIGATZEKO KLEASEAK

Urrutiko herri batean, negozio berri bat jarriko dute martxa bi neska gaztek. Bertan, jende bereziarekin egingo dute topo.

AKELARRE



15

ABENDUA | DOMEKA | 19:00 | Zabielen
"Roboten denda", "Neskak, mendia eta
beste guztiak" eta
"Lorontziaren epaiketa"
Akelarre antzerki taldea

ROBOTEN DENDA

Gure egunerokotasunean gero eta ohikoagoa da robotak egotea, eta ez da arraroa dendetan horrelakoak salgai ikustea. Denda honetan topa ditzakezu.

NESKAK, MENDIA ETA BESTE GUZTIAK

Dena kontrolpean zegoen mendiko asteburu lasai bat izateko, baina pertsonai berezi batzuek dena aldatuko dute.

LORONTZIAREN EPAIKETA

Epaiketa batean edozer gerta daiteke, baina inork ezin zuen imajinatu epaiketa honetan gertatutakoa.



01

ABENDUA | DOMEKA | 19:00 | Zabielen
"RITA" antzezlana. TXALO produkzioak
SARRERA: 5 euro.

Frank, Unibertsitateko literatura irakasleari, ikasle berri bat etorri zaio: Rita, pelukera. Bi mundu aparte.

Irakaslea etsiak jota dagoen poeta da, amore emandakoa, baina Ritaren agerpenak berpiztuko du. Ikasleak ikastea maite du eta irakasleak maitatzen ikusiko du.

Sarritan, ikaslea bera izan ohi da irakaslerik onena.



Mutrikuko Udala

